

Euskal AEko industriaren sektorearen pisua % 24,2koa izan zen 2022an

Industriaren diru-sarreraren bolumena 74.000 milioi eurotik gorakoa izan zen


Eustaten datuen arabera, **industriak Euskal AEko ekonomia osoan duen pisu erlatiboa** — balio erantsi gordinari dagokionez — % 24,2koa da 2022an, eta Espainian (% 17,4), Frantzian (% 13,3) edo Europar Batasuneko 27tan (% 20,6) baino nabarmen handiagoa da, baita Alemanian (% 24,0) baino zertxobait handiagoa ere.

Industriaren sektorearen diru-sarreraren bolumena 74.642 milioi eurora iritsi zen, termino arruntetan, 2022an, serie historikoko handiena Euskal AEn. **Negozio-zifraren** bolumen horrek % 26,1eko iguera suposatzen du 2021aren aldean.

2022ko testuinguru makroekonomikoan, Euskal AEko industriak aparteko urtea izan du, eta dinamismo hori adierazle ekonomiko guztietan proiektatu da, adierazle horiek joera positibo hori erakusten baitute.

Industriaren parte-hartzea OPBEG-an

Ehunekoa



Iturria: Eustat-Industriaren estatistika, INE, Eurostat

2022. urterako industriaren **balio erantsiaren** bilakaerak 2020ren —COVID-19 pandemiaren urtea— aurreko urteen antzeko balioak ditu, urte horretan balio erantsiak beherakada handia izan ondoren. 2022an, bolumenari dagokionez, Euskal AEk izan du gehikuntzarik handiena (% 4,7), ondoren Espainiak (% 2,6), EB27k (% 1,9) eta, azkenik, Frantzia eta Alemania daude; hauek % 1,5 eta % 0,5eko gutxitzeak jasan dituzte.

Euskal AEko industriaren ezaugarri nabarmenetako bat **sektoreko kontzentrazio-maila** altua da; hori ez da asko aldatu azken urteetan. Euskal industriak 2022an sortutako Balio Erantsi Gordinaren % 30,2 Metalurgia eta produktu metalikoen adarrari zegokion. Sektore klasiko horrek, ehunekoei dagokienez, pisu handia izan du beti. Sektore horri Makineria eta ekipamendua (% 10,1), Garraio-materiala (% 9,9) eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 9,3) gehitzen bazaizkio, industriako balio erantsiaren % 59,5 kontzentratzen da, 2010ean baino 2,6 puntu gehiago.

2022an, euskal industriako **establezimenduen batez besteko tamaina** 16,9 pertsonakoa zen, eta sektoreen artean aldakortasun handia zegoen. Industria-establezimendu gehienek, % 83,3k, 20 langile baino gutxiago zituzten, eta enpleguaren % 20,8 ordezkatzeko zuten. Beste muturrean, establezimenduen % 0,8k —250 langile baino gehiagorekin— enpleguaren % 25,4 hartzen zuten.

Enpleguari dagokionez, industriak guztizko enpleguaren % 19,8 hartzen du 2022an, eta haren pisuak estatuko batez bestekoak (% 11,1) eta EB-27koak (% 15,6) baino handiagoa izaten jarraitzen du. Aipatzekoa da gure inguruko herrialdeetako indizeak ere gaitzitzen dituela; hala, Alemanian industriako enpleguaren garrantzia % 17,8koa da, Italian % 16,7koa eta Frantzian % 10,1koa. Enplegua Metalgintza eta produktu metalikoak, Makineria eta ekipoa eta Garraio-materiala bezalako sektoreetan kontzentratzen da; industria-jardueraren hiru adar horietan soilik industrian lan egiten duten langileen % 53,7 kontzentratzen da.

Produktibitateari (faktoreen kostuko balio erantsi gordinaren eta langile okupatuen arteko zatidura gisa ulertuta) dagokionez, 2021ean —Europa-mailan datuak dauden azken urtea—, Euskal Autonomia Erkidegoan 68.000 €/koa zen, Espainiakoa (63.100 €) baino handiagoa baina EB-27koa (74.700 €), Frantziakoa (81.000 €) edo Alemaniakoa (92.600 €) baino txikiagoa.

Euskal AEko industria-sektoreen **maila teknologikoari** dagokionez, Euskal AEko industria-jardueren % 5,2 goi-mailan kokatuta dago, nahiz eta aztertutako epe horretan —2010-2022— maila hazi egin den, 2010ean % 3,5etik hasi baitzen.

Bestalde, hamahiru urteko aldi horretan, teknologia-edukiren bat duten sektoreak ehuneko bost puntu baino gehiago igo dira, 2010eko % 84,9tik 2022ko % 90,0era pasatuz.

Euskal industria-enpresen ezaugarri bereizgarrietako bat kanpora begira daudela da, **esportatzeko joera** handia baitute. Adierazle horrek industriako esportazioek industriako BEGd-aren gainean duten proportzioa islatzen du, eta 2022an % 140ko balioa lortu zuen Euskal AEn. Industriaren sektoreak duen esportazio-joera hori Garraio-materialean (% 480), Makineria eta ekipamenduan (% 217) eta Industria kimikoan (% 195) oinarritu da batez ere.

32.721 milioi euroko balioa zuten **esportazioak** eta 29.662 milioi eurokoa zuten **inportazioak** egin ziren. Horrela, guztizko estaldura-tasa —esportazioek inportazioen balioarekiko duten balioa adierazten duena— % 110,3koa da.

Azkenik, Euskal Industriaren Panoramak berrikuntza eta informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera ere aztertzen ditu, lehiakortasuna hobetzeko motor gisa. Industriak bere osotasunean **berrikuntza**-jardueretan 2022rako egindako gastua Euskal AEn sektore guztietan egindako gastu osoaren % 41,8 izan zen, eta barneko I+G izan zen elementurik nabarmenena (% 47,6), berrikuntzara bideratutako gastu guztien barruan.

Gainera, euskal industriak **informazioaren eta komunikazioaren teknologiak** deritzenen ezarpen-maila handia du; izan ere, ia industria-adar guztietan, industria-establezimenduen % 92k baino gehiagok ordenagailua eta Internet dute.

Internetek eskaintzen dituen aukera ugarien artean, **merkataritza elektronikoa** egin ahal izatea dago. Jarduera mota horrek gora egin du azken urte honetan Euskal AEn, bai negozio-zifretan, bai parte hartzen duten enpresen kopuruan; izan ere, 10 langile baino gehiagoko industria-establezimenduen % 44,8k Internet bidezko erosketak edo salmentak egin zituen 2022an (2021ean % 35,6k egin zituen).

Azkenik, **Industria 4.0** izenekoan —enpresen eraldaketa digitalari egiten dio erreferentzia— aztertzen diren bederatzi adierazleen artean, honako hauek nabarmentzen dira: sare sozialak enpresa-helburuetarako erabiltzea (establezimenduen % 53,4k du) eta hodeiko zerbitzu informatikoak (Cloud Computing), establezimenduen % 31,0k ostatu-mota horrengatik ordaintzen baitute.

Metodologiari buruzko oharra:

Euskal Industriaren Panorama lau ataletan egituratzen da. Lehenengoa, Euskal AEko industrian zentratzen da, euskal testuinguru makroekonomikoan eta gure inguruko ekonomiekin alderatuta; bigarrenak gure erkidegoko industriaren egoera aztertzen du, balio erantsia edo langile okupatuak bezalako adierazleen bidez, eta, era berean, eskualdeetako testuinguru geografiko txikienera heltzen dio; hirugarrenean, funtsezko alderdi ekonomikoak jorratzen dira, hala nola lehiakortasuna edo inbertsioa; azkenik, laugarren atalean, I+G+b euskal industrian eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera aztertzen dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62